



**ERRETERIA**  
UDALA



# ERRETERIAKO HERRITARREN IRITZIAK UDALAREN ETA BERE PROIEKTUEN INGURUAN

---

IKERKETA KUANTITATIBOA

## AURKIBIDEA

<b>1.</b>	<b>SARRERA</b> .....	<b>2</b>
<b>2.</b>	<b>METODOLOGIA OHARRAK</b> .....	<b>3</b>
<b>3.</b>	<b>EMAITZAK</b> .....	<b>4</b>
3.1.	ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK .....	4
3.2.	ERRENTERIAREKIKO ASEBETETZEA ETA UDALERRIKO ARAZO NAGUSIAK .....	7
3.2.1.	ERRENTERIAKO ASEBETETZE MAILA, BIZITZEKO UDALERRI MODUAN .....	8
3.2.2.	GEHIEN BALORATZEN DEN ERRENTERIAREN ASPEKTUA .....	9
3.2.3.	ERRENTERIAKO ARAZO NAGUSIA ZEIN DEN.....	10
3.2.4.	AZKEN URTEETAKO BILAKAERAREN BALORAZIOA.....	11
3.3.	UDAL GOBERNUA ETA BERE KUDEAKETAREN BALORAZIOA .....	13
3.3.1.	UDAL GOBERNUAREN ETA OPOSIZIOAREN INGURUKO IRITZIAK .....	15
3.3.2.	UDAL GOBERNUA HAINBAT GAJETAN NOLAKO KUDEAKETA EGITEN ARI DEN .....	16
3.3.3.	UDAL GOBERNUAREN EZAUGARRIAK.....	17
3.3.4.	ORDEZKARI POLITIKOEN EZAGUTZA ETA BALORAZIOA .....	18
3.3.5.	UDAL GOBERNUAREN INGURUKO BALORAZIO OROKORRA .....	19
3.4.	ERRENTERIAKO UDALAREN ETORKIZUNEKO BALIZKO PROIEKTUAK .....	20
3.4.1.	LEHENESTEN DIREN KUDEAKETA-EREMUAK .....	23
3.4.2.	EREMU BAKOITZEKO, LEHENESTEN DIREN ETORKIZUNEKO BALIOZKO PROIEKTUAK .....	24
3.5.	AMAIERAKO OHARRAK.....	26

# 1. SARRERA

---

Jarraian datorrena Errenteriako Udalaren enkarguz egindako ikerketaren emaitza da. Ikerketa hau 2022ko apirilaren 25a eta maiatzaren 12a bitartean egindako inkesta baten bidez garatu da. Galdetegia Errenteriako Udaleko ordezkariekin adostua izan da.

Aurkezten den txostenak honako egiturari jarraitzen dio:

- Hasteko, ikerketa egiteko erabili den metodologia azaltzen da.
- Ondoren, inkestaren edukietan edota ikerketaren emaitzetan sartzen gara:
  - o Inkestatutako herritarren **aldagai soziodemografikoak** aurkezten dira.
  - o **Egoera orokorraren inguruan** egiten duten balorazioa jasotzen da: udalerriarekiko dagoen asebetetze maila, udalerriaz gehien baloratzen diren aspektuak zein diren, Errenterian identifikatzen diren arazo nagusiak zein diren eta zein bilakaera ikusten zaion herriari azken urteetan.
  - o **Udal gobernuaren inguruko hainbat aldagai** aztertzen dira ondoren: Udal gobernuaren eta oposizioaren inguruko iritzia, gai konkretu batzuen inguruan Udal gobernuaren kudeaketa nolakoa den, Udal gobernuaren hainbat ezaugarriaren inguruko balorazioa eta bere balorazio orokorra, eta udal ordezkari batzuen ezagutza eta balorazioa.
  - o Amaitzeko, **Errenteriako Udalak mahai gainean dituen zenbait eremuk eta bakoitzeko hainbat proiektuk** herritarren ustez duten **lehentasuna** aztertzen da.

## 2. METODOLOGIA OHARRAK

**ERABILITAKO TEKNIKA:** Errenteriako herritarrei egindako inkesta egituratua.

**UNIBERTSOA:** Errenterian bizi diren 18 urtetik gorako herritarrak. Garai honetan, zehazki, adin horretako **32.892** lagun zeuden erroldatuta.

**LAGINA:** **600** herritar.

**LAGINKETA:** Lagina unibertsoaren argazki ahalik eta fidelena izan zedin, adina eta sexuaren araberrako kuotak erabili dira.

**GALDERA-SORTAK:** Aztertu nahi ziren gaien inguruko galderekin osatu dugu galdera-sorta, Udaleko ordezkariekin elkarlanean. Elkarrizketa batzuk euskaraz (%19,2) eta beste batzuk gaztelaniaz (%80,8) egin direnez, bi galdera-sorta izan ditugu, hizkuntza bakoitzean bana.

**LANDA-LANA:** Inkestak 2022ko apirilaren 25a eta maiatzaren 12a bitartean egin dira. Inkesta batzuk telefono bidez egin dira, eta besteak aurrez prestutasuna adierazitako herritarrei online inkestarako sarbidea bidaliz egin dira. Oro har, herritarren erantzuna oso ona izan da.

**AKATS TARTEA:** **±%4,0** lagin osoarentzat, **%95,5eko konfiantza mailan** eta  $p=q = %50,0$  denerako.

Guztira, 600 inkesta egin dira adierazitako daten artean. Ondoren, inkesta horiek sexua eta adinaren arabera haztatu dira.

### **DATU TEKNIKOAK (LABURPENA):**

**Unibertsoa:** 18 urtetik gorako Errenteriako herritarrak (**32.892**)

**Lagina:** **600** herritar.

**Landa-lana:** 2022ko apirilaren 25a eta maiatzaren 12a bitartean. Inkestak euskaraz (%19,2) zein gaztelaniaz (%80,8) egin dira, inkestatuaren nahiaren arabera.

**Akats tartea:** **±%4,0** lagin osoarentzat, %95,5eko konfiantza mailan eta  $p=q = %50,0$  denerako.

## 3. EMAITZAK

---

### 3.1. ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK

---

Aldagai soziodemografikoei dagokienez, zertxobait gehiago dira emakumeak (%52,3) gizonak baino (%47,7). Adinaren kasuan, %53,8k 50 urtetik gora ditu eta % 46,2k 18% eta 49 urte bitartean. Bi talde handienak 35-49 urte bitartekoak eta 65 urtetik gorakoak dira (%28,2 eta %28,7 hurrenez hurren); talderik txikiena, aldiz, 18-34 urte bitartekoa da (%18).

Azterketa honetarako, Errenteria guztia bost zonaldetan banatu da. Egindako banaketaren arabera, Erdigunea-Olibet-Etxe Berriak inguruan daukagu laginaren zatirik handiena (%29,1), eta ondoren nahiko antzeko gelditzen dira Gabierrota-Fanderia-Lartzabal-Alaberga-Agustinak (%21), Beraun-Kaputxinoak (%20,5) eta Galtzaraborda-Iztietia (%19,8). Ehunekorik txikiena Pontika-Gaztaño-Zamalbiden dago, %9,5.


Inkestaturen erdia lanean ari da (%51,2), %10,4 langabezian dago eta herena jubilatua edo pentsionista da, edo etxeko lanetan dihardu. Bizi diren etxebizitzako kideen ezaugarriei dagokienez, % 41,6 bikotea eta seme-alabak dituen etxe batean bizi dira eta beste % 27,5 bikotean. Bakarrik bizi diren pertsonak %13,6 dira.

Nahiko pareko banatzen dira inkestatuak euskara-gaitasunaren arabera. Talderik handiena euskaldunena da, %38,6. Ondoren, elebidun hartzaileak datoz, %33,3, eta talderik txikiena erdaldunena da, %28,2.

**Sexua / generoa**

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Emakumezkoa	314	52,3
Gizonezkoa	286	47,7
Guztira	600	100,0


Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2022."



**Adin-tartea**

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
18-34 urte artean	108	18,0
35-49 urte artean	169	28,2
50-64 urte artean	151	25,2
65 urtetik gora	172	28,7
Guztira	600	100,0


Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2022."



**Zonaldeak**

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Erdigunea-Olibet-Etxe Berriak	175	29,1
Gabierrota-Fanderia-Lartzabal-Alaberga-Agustinak	126	21,0
Beraun-Kaputxinoak	123	20,5
Galtzaraborda-Iztieta	119	19,8
Pontika-Gaztaño-Zamalbide	57	9,5
Guztira	599	100,0


Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2022."



**Lan egoera**

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Lan ordainduan (jardun osoan)	238	39,7
Lan ordainduan (jardun murriztuan)	40	6,6
Autonomia edo bere kontura	20	3,4
Langabezian	63	10,4
Etxeko langilea	14	2,4
Ikaslea	25	4,2
Ikasi + lana	9	1,5
Jubilatu / pentsionista	185	30,9
Beste bat	5	0,9
<b>Guztira</b>	<b>600</b>	<b>100,0</b>


Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2022."



**Zein familia-harreman duzue bizi zareten etxebizitzan?**

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bikotea seme alabekin (1 edo gehiago)	248	41,6
Bikotea seme alabarik gabe (ez dituzue edo ez dira etxean bizi)	164	27,5
Kide bakarreko etxea	81	13,6
Familia zabala (familia kide gehiagorekin: osaba-izebak, aitona-amonak...)	53	8,8
Guraso bakarra seme-alabekin (monoparental)	40	6,7
Familia ez diren kideak (lagunak...)	11	1,8
<b>Guztira</b>	<b>595</b>	<b>100,0</b>


Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2022."



**Euskaraz ulertu eta hitz egiten duzue ondo, hitz egin nekez baina ulertzen duzue edo ez duzue ulertzen?**

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Ondo ulertu eta hitz egin	230	38,6
Ulertu bai, hitz egin nekez	199	33,3
Ez ulertu ez hitz egin	168	28,2
<b>Guztira</b>	<b>597</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2022."



## 3.2. ERRENTERRIAREKIKO ASEBETETZEA ETA UDALERRIKO ARAZO NAGUSIAK

Errenteriako herria, bizitzeko leku gisa, zein neurritan gustatzen zaien galdetuta, batez beste 7,9ko puntuazioa ematen diote herriari 0 eta 10 bitarteko eskalan; gehienak 8 eta 10 bitarteko puntuazioetan kokatzen dira (%68,8) eta oso gutxi dira 5 edo puntuazio baxuagoa ematen diotenak (%5,2). Sexuaren arabera aztertuta, emakumeen artean gehiagok ematen diote 8tik gorako puntuazioa gizonek baino (%71,2 lehenengoan artean eta %66,2 bigarrenen artean). Adin-taldeen arabera, zenbat eta talde gazteagoa izan orduan eta gutxiagok ematen dute 8 eta 10 bitarteko puntuazioa, nahiz eta batezbestekoak hiru hamarreneko desberdintasunarekin gelditzen diren.

Hiru galdera egin dira modu irekian, herriaren inguruko balorazio xeheagoa jasotzeko: gehien baloratzen den aspektua, herriari ikusten zaion arazorik garrantzitsuena eta azken 10 urteetako bilakaera.

Gehien baloratzen diren aspektuen artean, sarrien aipatzen dena herriaren komunikazioa da: kokapen ona du herriak, eta ondo komunikatuta edo konektatuta dago inguruarekin (Donostia, Irun, garraio publiko ona...). Ezaugarri hori aipatu du inkestatuen %22,7. Bigarren lekuan, herrian dagoen zerbitzu eta baliabide aukerari egin zaio erreferentzia (denetik dagoela herrian, dena eskura); inkestatuen %11,5ek egin du gisako adierazpenen bat. Hirugarren lekuan, %9,4k lasaitasuna nabarmendu du, eta ondoren, %7,7k, giroa duela eta bertan dagoen bizitza.

Beste aldean, Errenteriak dituen arazo nagusiez pentsatzen jarrita, bi gai aipatu dira bereziki: "aparkaleku falta" (%24,5) eta "delinkuentzia, lapurretak, segurtasun falta" (%16,6). Segidan, beste bi gai nabarmentzen dira: "lana, lan baldintzak eta langabezia" (%7,9) eta "udalerrria ez dagoela txukun (kaleak, bideak, parkeak...) mantenimendu falta eta zikinkeria" (%6,9). Nabarmentzekoa da, era berean, herritar gazteenen artean hirugarren arazo nagusi moduan etxebizitza aukera falta aipatu dela (18 eta 34 urte bitartekoen %6,6k adierazi du).

Azken urteetan herriari ikusi zaion bilakaeraz hausnartzerakoan, balorazio positiboak, negatiboak eta neutroak jaso dira. Hiruen artean, zerbait positiboa jasotzen duten esaldiak izan dira nagusiak. Lau aldiz edo gehiagotan errepikatu diren ideiak kontuan hartuta, inkestatuen erdiak baino gehiagok balorazio positiboren bat egin dute, eta %13,1ek negatiboa. Gehien azpimarratu diren ideien artean, ingurumena, berdeguneak, parkeak, bidegorriak eta peatonalizazioaren gisako neurriak areagotu direla aipatu da (%6,9k), azpiegitura publikoak ugaritu eta beren egoera hobetu dela (%6,0k), eta ekintza eta jarduera gehiago daudela aipatu da segidan, kultur eskaintza handiagoa dagoela (%5,0ek). Alde negatiboan, delinkuentzia eta segurtasun falta handitu direla adierazi du %4,6k.




## 3.2.1. ERRENTERIAKO ASEBETETZE MAILA, BIZITZEKO UDALERRI MODUAN

**Esango zenidake zenbateraino gustatzen zaizun Errenteria bizileku gisa? 0tik 10erako eskalan: 0k esan nahi du ez zaudela batere asebeteta eta 10ek erabat asebeteta zaudela.**

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
8-10	411	68,8
6-7	155	26,0
0-5	31	5,2
Guztira	597	100,0
<b>Batezbestekoa</b>		<b>7,9</b>


Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2022."



## 3.2.2. GEHIEN BALORATZEN DEN ERRENTERIAREN ASPEKTUA

## Zein da edo dira Erreteriaz gehien baloratzen dituzun aspektuak (Irekiak)

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Komunikazio ona: konexioa inguruko herriekin, Donostiarekin, Irunekin, garraio publiko ona...	134	22,7
Denetik dagoela herrian, dena eskura	68	11,5
Lasaitasuna	55	9,4
Giroa du, bizitza soziala	45	7,7
Herri atsegina eta eroso da orokorrean	32	5,3
Aktibitate kultural handia	25	4,2
Zonalde berdeak, inguru naturala gertu	20	3,4
Dena ona dauka	19	3,3
Jendea, erreteriarak orokorrean	16	2,6
Komertzio aukera zabala	14	2,4
Bidegorri, pasealeku eta parke asko dituela	14	2,4
Herria garbi eta txukun dagoela, zainduta	13	2,1
Udal zerbitzu onak, orokorrean	12	2,0
Familia eta gertukoak bertan dituela	9	1,6
Bizikidetza, ezberdinen artean egoteko aukera	9	1,5
Irisgarritasun ona, igogailuak...	8	1,4
Udalaren kudeaketa ona, herritarrei atentzio ona	7	1,2
Zerbitzu eta laguntza sozialak onak	7	1,2
Herri solidarioa eta parte hartzailea dela	5	0,9
Azken urteetan herriak izan duen bilakaera positiboa: hobekuntzak hirigintzan, erreka garbiago...	5	0,8
Beste	21	3,6
Ezer ere ez	11	1,9
Ez daki / Erantzunik ez	41	7,0
<b>Guztira</b>	<b>592</b>	<b>100,0</b>




Iturria: Aztiker, "Erreteriarako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2022."

### 3.2.3. ERRENTERIAKO ARAZO NAGUSIA ZEIN DEN

#### Zure ustez, zein da Erreteriak duen arazorik garrantzitsuena? (Irekia)

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Aparkaleku falta	146	24,5
Delinkuentzia, lapurretak, segurtasun falta	99	16,6
Lana, lan baldintzak, langabezia	47	7,9
Udalerrria ez dago txukun (kaleak, bideak, parkeak...), mantenimentu falta, zikinkeria	41	6,9
Erreteriak ez du arazo handirik	30	5,1
Auzoen zaintza falta, auzo batzuk abandonatuta daude	23	3,9
Trafiko handiegia, buelta handiegia eman beharra	17	2,9
Papeleraren usaia eta soinua	17	2,9
Azpiegiturak eta garraioak	16	2,6
Etxebizitza aukera falta	14	2,3
Immigrazioa eta horrekin lotutako arazoak, arrazakeria	13	2,2
Berdeguneen eta parkeen falta	11	1,8
Zaborrak, hondakinak edukiontzi kanpoan	10	1,8
Prezioen igoera, bizitzaren garestitzea	9	1,6
Ingurumena	8	1,3
Gazteen arazoak	7	1,2
Zerbitzu publikoen funtzionamendua eta hedadura, laguntzak	7	1,1
Egoera sozioekonomiko txarra, arazo ekonomikoak	5	0,9
Arazo eta desberdintasun soziala	5	0,9
Adinekoei arreta eta laguntza	3	0,6
Masifikazioa, biztanle gehiegi dituela Erreteriak	3	0,4
Egoera politikoa, politikariak eta gatazka politikoa	2	0,3
Erreteriak ez du arazo handirik	30	5,1
Beste bat	14	2,4
ED-EE	46	7,7
<b>Guztira</b>	<b>596</b>	<b>100,0</b>




Iturria: Aztiker, "Erreteriarako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2022."

## 3.2.4. AZKEN URTEETAKO BILAKAERAREN BALORAZIOA

**Azken 10 urteak kontutan hartuta, Errenteria zertan aldatu dela esango zenuke? (Irekia)**

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Ingurumena, berdeguneak, parkeak, bidegorriak, peatonalizazioa... areagotu dira	41	6,9
Azpiegitura publikoak areagotu dira eta beren egoera hobetu dira	36	6,0
Biztanleria handitu da, herria urbanistikoki handitu da	34	5,8
Ekintza eta jarduera gehiago daude, kultur eskaintza handiagoa...	30	5,0
Hobera egin du, besterik gabe	28	4,7
Delinkuentzia areagotu da, segurtasun falta	27	4,6
Herriko txukuntasuna handitu da	24	4,0
Lasaitasuna irabazi da, gatazka gutxiago daude, segurtasuna areagotu da	22	3,8
Immigrazioa areagotu da, kultur/jatorri aniztasun handiagoa dago	22	3,8
Irisgarritasuna areagotu da, igogailuak jarri dira	20	3,3
Herri bizitza galdu da, ekintza gutxiago daude, giroa galdu da...	15	2,6
Giroa, herri bizitza handitu da	14	2,4
Urbanistikoki hobetu da	14	2,3
Jendearen izaera aldatu da	11	1,8
Egoera ekonomikoa okertu da, industria jaitsi da, prezioak igo, baldintza okerragoak...	10	1,7
Trafikoa areagotu / okertu da, autoaren erabilerarako baldintzak okertu dira (aparkalekua, prezioa...)	10	1,7
Komunikazioa (garraio publikoa, errepideak...) areagotu da	10	1,6
Zerbitzu gehiago daude, denda gehiago...	9	1,6
Auzoen egoera hobetu da, auzoek arreta gehiago jasotzea	8	1,3
Gizarte laguntzak hobetu dira	7	1,3
Herritarren parte-hartzea handitu da	7	1,2
Egoera politikoa hobetu da	7	1,2
Merkataritza txikia galdu da	6	1,0
Segurtasuna handitu da, delinkuentzia jaitsi	5	0,9
Obra gehiago egiten dira	5	0,9
Bizi-kalitatea irabazi du	4	0,7
Zikinago dago	4	0,7
Udalaren jarduna hobetu da	4	0,7
Gidatzeko errepideak hobetu dira, auto kopurua jaitsi da herrigunean	4	0,7
Modernizatu egin da	4	0,7
Beste bat	15	2,5
Ezertan ez	50	8,5
Denean	7	1,2
Ez dakit	78	13,1
Guztira	594	100,0

Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2022."



### 3.3. UDAL GOBERNUA ETA BERE KUDEAKETAREN BALORAZIOA

Udal gobernuaren kudeaketari buruzko atal bat jaso da inkestan. Herritarren %68,7k udalaren balorazio positiboa egin du: %22,4k dio Erreneriako arazoak konpontzen ari dela eta %46,0k badakiela nola konpondu Erreneriako arazoak, baina denbora gehiago behar duela. %13,5ek du, aldiz, balorazio negatiboa (ez daki nola konpondu Erreneriako arazoak), %5,3ren ustetan bere eskumenetatik kanpo dago herriko arazo nagusiak konpontzea, eta %12,9k ez daki edo ez du erantzunik eman. 35 eta 49 urte bitarteko pertsonen artean, jarrera kritikoak pisu handiagoa du (%19,6k dio ez dakiela nola konpondu Erreneriako arazoak), eta gizonen artean ere pisu handiagoa du jarrera kritikoak emakumeen artean baino, 7 puntuko desberdintasunarekin.

Oposizioari dagokionez, nahiko pareko banatzen dira Erreneriako arazoak konpontzeko proposamenak egiten laguntzen duela uste dutenak (%20,6) eta Udal Gobernuari kritika eta oztupoak jartzen dizkiola adierazten dutenak (%19,9). %26,8k "ez bat ez beste" aukeratu du, eta %32,6k ez daki edo ez du erantzunik eman.

Udal kudeaketaren balorazioa jaso da gai batzuen inguruan. Aipatzekoa da, lehenengo eta behin, galdetutako kudeaketa-gai guztien inguruan inkestatuen erdiak baino gehiagok egiten duela balorazio positiboa (kudeaketa "oso" edo "nahiko" ona dela esaten dute). Item bakoitza jaso duen balorazioaren arabera ordenatuta<sup>1</sup>, lehenengo lekuan honako adierazpena gelditu da (%85ek balorazio ona egiten dute, %38,8k oso ona): "Udalera jotzen duzunean jasotzen duzun arreta. Bigarren lekuan, nahiko pareko, "kultur eskaintza" eta "herriko merkataritzaren eta ostalaritzaren sustapena" gelditu dira (%83k eta %79,5ek egiten dute balorazio ona, hurrenez hurren, eta laurdena pasak oso ona). Hirugarren, "kirol instalazioen eskaintza" dago, %22,2ren ustez "oso kudeaketa ona" duena eta %49,2ren arabera "ona" (%71,3 guztira). Beste aldean, balorazio baxuena jasotzen duten proiektuen kasuan, bereziki "oso kudeaketa ona" egiten dela dioten pertsonen ehunekoa jaisten da: "gazteei zuzendutako programen" kasuan %7,9k uste du kudeaketa oso ona dela eta %45,8k ona (%53,7k guztira); "norbere auzoak Udaletik jasotzen duen arretaren" kasuan %14,7k dio dela oso ona eta %52,2k ona (%66,9k guztira), baina %28,8k kontrako balorazioa adierazten dute; eta, azkenik, eragile edo herritar gisa, herriko ekimenetan eta prozesuetan parte hartzeko aukeraren" inguruan, %51k egiten du balorazio positiboa.

Bestetik, Udal Gobernuaren balorazioa eskatu da ezaugarri batzuen arabera. Ondoen baloratu den aspektua "komunikazioa, Udalaren inguruko informazioa herritarrei helaraztea" izan da (6,7ko batezbestekoa). Segidan, 6,6ko batezbestekoarekin, "zintzotasuna" eta "beste erakundeekin elkarlanean aritzeko gaitasuna (Diputazioa, Jaurlaritza...)" gelditu dira parez pare. Hiru gaik 6,4ko puntuazioa ateratu dute: "gestiorako gaitasuna", "lidergoa izateko gaitasuna" eta "herritarren arazoekiko hurbiltasuna". Azken lekuan, baloraziorik baxuena "akordioak lortzeko gaitasunari" eman zaio, 6,2ko batez besteko puntuazioarekin. Aldagai soziodemografikoen arabera, puntuazio baxua (0 eta 5 bitartekoa) emateko joera handiagoa nabaritzen da gizonen eta 35-49 urte bitartekoen artean.

<sup>1</sup> Likert eskala batean oinarritutako balorazioak izanda, indize baten arabera ordenatu dira gaiak. Indizeak -100/100 bitarteko balio bat har dezake, balorazio guztiz negatiboa izanez gero -100 eta guztiz positiboa izanez gero 100. Honako operazioa egiten da:  $(\text{oso ona} + \text{nahiko ona}/2) - (\text{nahiko txarra}/2 + \text{txarra})$ .

Udal ordezkari batzuk aipatu dira, zein neurritan ezagutzen diren eta zein balorazio egiten den beren inguruan jakiteko. Gehien ezagutzen den ordezkaria Aizpea Otaegi alkatea da, herritarren %49,2k. Ondoren, Maite Gartzia (Elkarrekin Podemos) dator, %20,2k ezagutzen duena. Nahiko gertu, herritarren %19,7k dio Itziar Ostolaza ezagutzen duela (EH Bildu), eta gutxien ezagutzen diren ordezkariak Isaac Palencia (PSE-EE) eta Eli Murua (PNV-EAJ) dira, %16,6k eta %14,4k aipatuta hurrenez hurren.

Beren lanaren balorazioari dagokionez, ondoen baloratuak Aizpea Otaegi eta Itziar Ostolaza dira, 0 eta 10 bitartean 7,1eko batezbestekoa jasotzen baitute. Bigarren lekuan, Maite Gartzia dago, 6ko batezbestekoarekin. Hirugarren, Eli Muruari 5,6ko puntuazioa ematen zaio batez beste, eta baloraziorik baxuena Isaac Palencia jasotzen du, 4,9ko batezbestekoa baitu.


Udalak legegintzaldi honetan egindako lanari 6,8ko batezbesteko puntuazioa eman zaio, zehazki %33,9k 8ko puntuazioa edo altuagoa ematen dio. COVID-aren pandemiaren aurrean izan duen kudeaketari (hartutako neurriak, emandako laguntzak...) zertxobait puntuazio altuagoa ematen zaio, batez beste 7,2koa hain justu, eta %46,7 8 eta 10 bitarte kokatzen da.

### 3.3.1. UDAL GOBERNUAREN ETA OPOSIZIOAREN INGURUKO IRITZIAK

#### Ondoko esaldietatik zeinek azaltzen du hobeto Udalari buruz duzun iritzia?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Errenteriako arazoak konpontzen ari da	135	22,4
Badaki nola konpondu Errenteriako arazoak, baina denbora gehiago behar du	276	46,0
Ez daki nola konpondu Errenteriako arazoak	81	13,5
Herriko arazo nagusiak konpontzea udalaren eskumenetatik kanpo dago	32	5,3
ED-EE	77	12,9
Guztira	600	100,0


Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2022."



#### Eta ondoko esaldietatik zeinek azaltzen du hobeto oposizioari buruz duzun iritzia?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Errenteriako arazoak konpontzeko proposamenak egiten laguntzen du	124	20,6
Udal Gobernuari kritika eta oztopoak jartzen dizkio	119	19,9
Ez bat ez beste	161	26,8
ED-EE	196	32,6
Guztira	600	100,0

Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2022."






### 3.3.2. UDAL GOBERNUA HAINBAT GAIETAN NOLAKO KUDEAKETA EGITEN ARI DEN

#### Udal kudeaketaren balorazioa hainbat aspekturen arabera

	Oso ona	Nahiko ona	Nahiko txarra	Oso txarra	ED-EE	Guztira (n eta %)	Indizea
Udalera jotzen duzunean jasotzen duzun arreta	38,8	46,1	2,9	2,4	9,7	100,0 288	<b>58,1</b>
Kultur eskaintza	27,3	55,6	7,6	2,3	7,1	100,0 288	<b>49,0</b>
Herriko merkataritzaren eta ostalaritzaren sustapena	26,2	53,3	10,9	1,6	8,0	100,0 312	<b>45,8</b>
Kirol instalazioen eskaintza	22,2	49,2	10,9	5,3	12,5	100,0 288	<b>36,1</b>
Jolas eremuen kopurua eta erakargarritasuna	18,6	48,6	15,7	5,9	11,2	100,0 312	<b>29,2</b>
Adinekoentzako zerbitzuak	16,0	43,7	11,8	3,6	24,8	100,0 288	<b>28,4</b>
Zaurgarrienei edo premia gehien dutenei laguntza soziala	19,0	36,7	14,6	5,3	24,3	100,0 312	<b>24,8</b>
Gazteei zuzendutako programak	7,9	45,8	9,8	3,3	33,2	100,0 312	<b>22,6</b>
Zure auzoak udaletik jasotzen duen arreta	14,7	52,2	19,5	9,4	4,2	100,0 288	<b>21,7</b>
Eragile edo herritar gisa, herriko ekimenetan eta prozesuetan parte hartzeko aukera	10,7	40,3	7,5	7,1	34,4	100,0 312	<b>19,9</b>

Iturria: Aztiker, "Errenterriko herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2022."

**Oharra:** Item hauek baloratzeko, lagina bitan zatitu da. Horregatik, bi oinarri desberdinen gaineko ehunekoak agertzen dira.




### 3.3.3. UDAL GOBERNUAREN EZAUGARRIAK

**Udal gobernuaren ezaugarriak**

	Komunikazioa, Udalaren inguruko informazioa herritarrei helaraztea		Zintzotasuna		Beste erakundeekin elkarlanean aritzeko gaitasuna (Diputazioa, Jaurlaritza...)		Gestiorako gaitasuna		Lidergoa izateko gaitasuna		Herritarren arazoekiko hurbiltasuna		Akordioak lortzeko gaitasuna	
	Maiztasuna	%	Maiztasuna	%	Maiztasuna	%	Maiztasuna	%	Maiztasuna	%	Maiztasuna	%	Maiztasuna	%
8-10	209	34,8	185	30,9	138	23,0	161	26,9	144	24,1	176	29,3	124	20,7
6-7	195	32,4	168	28,0	123	20,5	202	33,6	160	26,7	206	34,4	160	26,7
0-5	134	22,4	126	20,9	104	17,4	143	23,8	123	20,5	143	23,8	130	21,7
ED-EE	62	10,4	121	20,2	235	39,1	94	15,7	172	28,7	75	12,5	185	30,9
Guztira	600	100,0	600	100,0	600	100,0	600	100,0	600	100,0	600	100,0	600	100,0
<b>Batezbestekoa</b>	<b>6,7</b>		<b>6,6</b>		<b>6,6</b>		<b>6,4</b>		<b>6,4</b>		<b>6,4</b>		<b>6,2</b>	

Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2022."




### 3.3.4. ORDEZKARI POLITIKOEN EZAGUTZA ETA BALORAZIOA

#### Udal ordezkarien ezagutza

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Aizpea Otaegi (EH Bildu)	295	49,2
Maite Gartzia (Elkarrekin Podemos)	121	20,2
Itziar Ostolaza (EH Bildu)	118	19,7
Isaac Palencia (PSE-EE)	100	16,6
Eli Murua (PNV-EAJ)	87	14,4


Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2022."



#### Errenteriako Udaleko ordezkari politikoekin lanaren balorazioa (0-10)

	Aizpea Otaegi		Itziar Ostolaza		Maite Gartzia		Eli Murua		Isaac Palencia	
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
8-10	115	39,1	49	41,1	30	24,5	11	13,0	15	15,0
6-7	114	38,8	28	23,8	29	24,3	18	20,9	25	24,7
0-5	34	11,4	16	13,9	30	24,4	23	26,6	36	36,0
ED-EE	32	10,7	25	21,2	32	26,8	34	39,4	24	24,3
Guztira	295	100,0	118	100,0	121	100,0	87	100,0	100	100,0
<b>Batezbestekoa</b>	<b>7,1</b>		<b>7,1</b>		<b>6,0</b>		<b>5,6</b>		<b>4,9</b>	

Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2022."




### 3.3.5. UDAL GOBERNUAREN INGURUKO BALORAZIO OROKORRA

**Esadazu, mesedez, nola baloratzen duzun oro har Udalak legegintzaldi honetan egindakoa (2019tik), 0tik 10erako eskala erabiliz. Oak esan nahi du oso gaizki ari dela eta 10ak oso ondo ari dela**

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
8-10	204	33,9
6-7	218	36,4
0-5	104	17,3
ED-EE	74	12,4
Guztira	600	100,0
<b>Batezbestekoa</b>	<b>6,8</b>	

Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2022."




Batezbestekoa




**Oro har, nola baloratuko zenuke COVID-aren pandemiaren aurrean Errenteriako Udalak egin duen kudeaketa? Hartutako neurriak, emandako laguntzak eta abar**

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
8-10	280	46,7
6-7	166	27,7
0-5	98	16,4
ED-EE	55	9,2
Guztira	600	100,0
<b>Batezbestekoa</b>	<b>7,2</b>	

Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2022."



Batezbestekoa



## 3.4. ERRENTERIAKO UDALAREN ETORKIZUNEKO BALIZKO PROIEKTUAK

---


Inkesta amaitzeko, herritarren ustez hurrengo urteetan Udalak lehentasuna eman beharko lizkiekeen gai-eremu eta proiektu zehatzez jardun da.

Lehenengo eta behin, bost gai-eremu planteatu zaizkie inkestatuei. Beren artean, bakoitzaren ustez hurrengo urteetara begira Udalak lehentasuna eman beharko liekeen bi aukeratzeko eskatu zaie.

Gai-eremuaren arabera, desberdintasunak ikusten dira. Gehien aukeratu den eremua "herritar gazte eta adinekoen beharrak asetzea" izan da. Inkestatuen %69,1ek aukeratu du lehen edo bigarren aukera moduan, hau da, 600 pertsonatik 415ek. Bigarren eta hirugarren lekuan, nahiko pareko, bi gai gelditu dira: "herriko azpiegiturak eta instalazioak hobetzea" eta "tokiko ekonomia indartzea". Lehenengoa %39,4k aukeratu du eta bigarrena %38,6k. Laugarren, "ingurumena zaintzea eta irisgarritasuna hobetzea" herritarren %31,7k aukeratu du; eta gutxien aukeratua izan den gai-eremua "kohesio soziala eta gizarte politikak sustatzea" izan da, %21,3k hautatu baitu edo, zifra absolutuetan, 128 pertsonak. Aldagai soziodemografikoen arabera, 65 urtetik gorakoek aukeratu dute bereziki gehiago "herritar gazte eta adinekoen beharrak asetzea" (eta ez hala adin-talde gazteenak); "herriko azpiegiturak eta instalazioak hobetzea 35-49 urte bitartekoek aukeratu dute beste taldeek baino gehiago, eta zonaldearen kasuan, bereziki Gabierrota-Fanderia-Lartzabal-Alaberga-Agustinak inguruan bizi direnek.

Gai-eremu orokorrez harago, Udalak hurrengo urteetan aurrera eraman ditzakeen proiektu batzuen arteko lehentasunak ere azertu nahi ziren. Guztira, 25 proiekturen inguruko balorazioa jaso da. Horretarako, pertsona bakoitzari hamar proiektu aurkeztu zaizkio, horien artean bere ustez lehentasunezkoak izan beharko zuketen hiru aukeratzeko. Hamar proiektu horiek aurrez aukeratu dituen bi lehentasunezko gai-eremuen arabera izan dira; honela, bost gai-eremuen arabera antolatu dira lehenesteko ariketan landu nahi ziren hogeita bost proiektuak. Planteamendu honen ondorioz, proiektu bakoitza baloratzera iritsi diren pertsonen oinarria desberdina izan da, eremu bakoitza aukeratu duten pertsonen baloratu baitituzte bere baitako proiektuak (adibidez, "herritar gazte eta adinekoen beharrak asetzearen" baitako proiektuak hautatzeko aukera 415 pertsonen izan dute eta "kohesio soziala eta gizarte politikak sustatzea" eremuaren baitakoak 128k).

Honako organigrama izan dute gai-eremuek eta beren azpiko proiektuek:



